

IO|B

Alaia eta  
Balenciaga.  
Formaren  
eskultoreak

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA  
10 URTE / AÑOS / ANS / YEARS



« Balenciagak ondo ezagutzen zuen lanbidea, jantzigintza, bazekien josten... benetako couturier bat zen, bolumen berri bat asmatzeko gai, mahuketarako edo idunerako teknika berri bat. Balenciagak beti izan du eragina niregan. Zalantzarik gabe, garai guztietako jostun onenetakoa da.» AZZEDINE ALAÏA



# Alaïa eta Balenciaga. Formaren eskultoreak

ERAKUSKETA. APIRILAREN 30 — AZAROAREN 1/2021

**Cristóbal Balenciaga Museoko *Alaïa eta Balenciaga*.  
*Formaren eskultoreak* erakusketak, museoaren  
hamargarren urteurrenarekin bat eginda antolatua, bi  
sortzaile horien —Azzedine Alaïa (1935-2017) eta Cristóbal  
Balenciaga (1895-1972)— ehun lan aurkezten ditu, Parisko  
Azzedine Alaïa Fundazioaren bildumetakoak.**

1968an *Maison*-eko azken bilduma aurkeztu eta areto eta tailerren jarduera amaitu zenetik, Cristóbal Balenciagaren sorkuntzak definizioz modako janzkera iragankor gisa zuten balio materiala gainditzen hasi ziren, bildumako objektu bihurtu eta denboran irauteko.

1970etik aurrera, erakusketak antolatzen hasi ziren mundu osoan zehar, eta, antzinako bezero eta bildumagile adituen esparru pribatutik kanpo, Balenciagaren lanak ondasun publikotzat hartzen hasi ziren.

Bildumagile aitzindari horietako bat Azzedine Alaïa izan zen; ia lau hamarkadatan zehar artxibo izugarri bat osatuz joan zen. Berak kontatzen du nola hasi zen Balenciaga Etxea ixtean pieza kopuru handiak erosten; norako ezezagun batetik erreskatatu nahi izan zituen jantziak. «Mademoiselle Rennéek, hainbat hamarkadatan Cristóbal Balenciagaren zerbitzura lan egin zuenak, soineko sorta baten artean aukeratzera gonbidatu ninduen. Orduan ulertu nuen modaren historiaren alde zerbait egin behar nuela, eta orduan hasi nintzen bilduma egiten».

Alaïak bilduma osatzen jarraitu zuen eta lan gehiago eta gehiago metatu zituen, ez bakarrik Balenciagarenak, baita beste maisu handi batzuenak ere, Grès, Vionnet eta Schiaparelli adibidez. Garrantzi berezia zuten jantziak ziren, eta haiek beren denboraz gaindi kontserbatu behar zirela uste zuen. Teknika espezifikoak zituzten jantzietan oinarritzen zen haren interesa, eta modaren historiako piezarik gutzizatuenak eta haien sortzaileen izenak gainbeheratik edo ahanzturatik jaregitea zuen helburu.

2016. Azzedine Alaïa  
© Sylvie Delpech





Alaïa. Couture Automne-Hiver 2003  
Balenciaga. Haute Couture Automne-Hiver 1954  
© Julien Vidal / Fondation Azzedine Alaïa

«Alaïarena, denbora luzez ikusezina, Balenciagaren bildumarik interesgarrienetako bat izan da, beste inongo erakundetan kontserbatzen ez diren piezekin eta 30eko eta 40ko hamarkadetako sorkuntzen eragin garrantzitsuarekin. Zalantzarik gabe, *couturierrak* Balenciagarengan ezagutza-eta inspirazio-iturri bat ikusten zuen, Balenciagarentzat beste sortzaile batzuk izan ziren bezala, Lanvin edo Vionnet adibidez», adierazi du Miren Vivesek, Cristóbal Balenciaga Museoaren zuzendariak. «Oso bilduma interesgarria da, bildumagilearen beraren irizpideagatik. Ez da halabeharra bilduma osatu duena, lanbidean maisu den pertsona baten asmoa baizik».

Olivier Saillard eta G ael Mamine dira komisarioak, eta Azzedine Ala ia Fundazioak antolatu du, Crist bal Balenciaga Museoarekin lankidetzan. Bi erakundeek ideia horren sustatzaile Hubert de Givenchyren oroimenez hasitako proiektua da.

«Zalantzarik gabe, *couturierrak* Balenciagarengan ezagutza- eta inspirazio-iturri bat ikusten zuen, Balenciagarentzat beste sortzaile batzuk izan ziren bezala, Lanvin edo Vionnet adibidez.» MIREN VIVES

# Erakusketa

« Modaren historian, bi figura isil handi horiek – joeren ondorioetarako immuneak – asko izan dute elkarri esateko. » OLIVIER SAILLARD

Balenciaga  
Haute Couture Automne-Hiver 1967  
© Stéphane Ait Ouarab/Fondation Azzedine Alaïa



*Alaïa eta Balenciaga. Formaren eskultoreak* erakusketak bi sortzaileen ehun pieza biltzen ditu lehen aldiz; Olivier Saillard zuzendaritzapean, elementu partekatuen kopuru harrigarria erakusten du, hala sormen-prozesuan nola diseinuan.

Erakusketak sei erakusketa-gela hartzen ditu, Museoko 1.000 m<sup>2</sup>, eta guztira 100 pieza daude ikusgai (52 Alaïarenak eta 48 Balenciagarenak) atmosfera garbi eta araztuan, bai beira-arasetan bai haietatik kanpo.

Erakusketak Parisko Balenciaga Artxiboen dokumentazioa –zirriborroak, argazkiak eta filmak–, Azzedine Alaïari buruzko ikus-entzunezko bi pieza: 2001ean grabatutako elkarrizketa argitaragabe bat, oraingo editatu dena, eta Joe McKeena-k 2016an egindako dokumentala jasotzen ditu.

## Antzekotasunak eta aldeak

Erakusketak, ustekabeko kointzidentziak agerian jartzeaz gainera –sormen-prozesuari eta diseinuari dagozkionak, eta formari nahiz biografiari dagozkionak–, bi sortzaileen lanean dauden desberdintasun adierazgarriak ere erakusten dizkigu.

Azzedine Alaïarentzat, Cristóbal Balenciaga zen «maitatuena, estimatuena». Bi *couturier*rek neurri- eta bolumen-oreka perfektua partekatzen zuten, goi mailako arkitektura beren beroki eta jaketan, eta etengabeko bilaketa bat beren maisutasuna baieztatzen duten josturak ikusezin bihurtzeko.

Teknika menderatzeko oinarri gisa jostuntzari emandako garrantzia, eta ondorengo esperimentazio formala; horixe da biek komunean duten lehen puntuetako bat. Iraganaren berrikusketa hori eta jantzien eraikuntzaren azterketa islatzen da erakusketaren lehen aretoetan.



Balenciaga  
Haute Couture Printemps-Été 1968  
© Stéphane Ait Ouarab/Fondation Azzedine Alaïa

Ehunetikiko zuten maitasun partekatua, trebezia eta sotiltasunez landu zutena, gazazko soinekoetan eta parpail beltzetan iradokitzen da.

Kolore hori, beltza, topaleku dute, eta xehetasunekiko arretatsu bihurtzen ditu; Balenciagaren fuksia erradiatzaileak, berriz, Alaïaren gorri biziarekin hitz egiten du, gure erretinak liluratuz.

Alaïak eta Balenciagak funtsezko gaiak ere partekatu zituzten, hala nola tradizioa eta folklorea; horiek irudikatzen ditu Gitane soinekoak, Azzedine Alaïaren soineko guztien artean ospetsuak, zeina Balenciagaren lanaren espainiar inspiraziotik gertu dagoen.

Bi diseinatzaileen arteko antzekotasunak ez dira alderdi formaletan bakarrik geratzen, alderdi biografiko komunak partekatuz ere iristen dira. Modan aritzea hain erraza ez zen inguruneetatik abiatu ziren biak, eta, beraz, marka propioa izateko urratsa eman zutenean ez zioten beste inori tempoa markatzen utzi. Benetako *couturierrak* izan ziren, dena egiten zekiten. Prozesua kontrolatzea gustatzen zitzairen, eta beti leialak izan ziren beren buruarekiko, unean uneko modaren joeretatik eta egutegietatik harago.

Erakusketak, ustekabeko kointzidentziak agerian jartzeaz gain, bi sortzaileen lanean dauden desberdintasun adierazgarri batzuk erakusten dizkigu. Horieta bat emakumearen gorputzarekiko harremana da. Desberdintasun horiek emakumearen idealaren eta emakumeen edertasunaren ikuspegi desberdinetatik abiatzen dira, eta, zalantzarik gabe, bakoitzaren garaiari erantzuten diote.

Baina desberdintasun horretan ere badago antz bat: «Alaïa emakumezkoen gorputzetik hurbilago zegoen, nabarmendu egiten zuen; Balenciagak, berriz, bolumenekin jolasten zuen, harengandik urrunduz». Olivier Saillardek adierazten duen bezala, biak gai ziren beren sormen-prozesuetatik eta lan-filosofiatik jantzi eskultorikoak eraikitzeko, beren teknikaren ezagutza eztabaida ezinari esker.

Alaïa eta Balenciagaren diseinuek Getariako Cristóbal Balenciaga Museoan hitz egiten dute, denboraz kanpoko ondarea eta bi eskultore horiek modaren historiari egindako ekarpena nabarmenduz.

«Alaïa emakumezkoen gorputzetik hurbilago zegoen, nabarmendu egiten zuen; Balenciagak, berriz, bolumenekin jolasten zuen, harengandik urrunduz.» OLIVIER SAILLARD



# Azzedine Alaïa

## (1935-2017)

- 1935 Azzedine Alaïa jaio zen, Tunisia hiriburuan. Haren familiak garia ereiten zuen Silianako soroetan, baina aitona-amonekin hirian bizi zen Azzedine, eta han hasi zen eskolan.
- 1950 Alaïa Tunisiako École des Beaux-Arts eskolan sartu zen. Ikasketak ordaintzeko, bertako jostun batentzat aritzen zen, barrenak josten; gero, Madame Richard jostun frantsesarentzat lanean hasi zen; jostun hark Parisko goi mailako jostuntzako patroiak erosten zituen, Tunisiako bere bezeroentzat modeloak berregiteko.
- 1956 Alaïa Parisen kokatu zen Aljeriako Independentzia gerran. Apartamentu txiki batean (*chambre de bonne*) bizi izan zen Leïla Menchari lagunarekin batera. Christian Diorrentzat lan egin zuen tarte labur batez (Yves Saint Laurent zela zuzendari artistikoa). Simone Zehrfussek, Parisen bizi zen Tunisiako goi mailako gizarteko emakume batek, Parisko goren mailako gizarte zirkuluan aurkeztu zuen Alaïa. Horrela ezagutu zuen Louise de Vilmorin, zeinarekin izan baitzuen adiskidetasunezko harremana, hil arte. Zehrfussi esker ezagutu zituen, halaber, André Malraux, Joan Miró eta Jean Cocteau.
- 1959-62 Nicole de Blégiers kondesak bere etxean hartu zuen, eta, horren trukean, haurrak zaindu eta soinekoak egiten zizkion Alaïak. Christoph von Weyhe ezagutu zuen, École des Beaux-Arts de Parisko ikasle bat, eta harekin bizi izan zen bizi osoan. Pixkanaka, sendotuz joan zen Alaïaren *couturier* ospea, eta Frantziako goi mailako gizarteko emakume askorentzat sortu zuen arropa, hala nola Cécile, Lina eta Marie-Hélène de Rothschildentzat.
- 1963 Alaïa Marronniers kalera aldatu zen, Rose-Marie Le Quellec lagun eta modeloarekin batera. Orduan eskuratu zuen bere artelan garrantzizkoetako lehena, buru baten eskultura koptoa; artelan haren jabea Greffulhe kondesa ospetsua izan zen aurrez, zeina hartu baitzuen Marcel Proustek Guermantesko dukesaren pertsonaia sortzeko inspirazio iturri.
- 1964 Christoph von Weyherekin, Parisko rive gauche ibaiertzeko Bellechasse kaleko 60. zenbakira aldatu zen. Hantxe finkatu zuen bere *Maison* edo etxea, 18 langile enplegatu zituen bere lantegian. Soinekoak sortu zituen bezero pribatuentzat, baita beste diseinatzaile batzuentzako enkarguak egin ere. Louise de Vilmorinekin Erromara bidaiatu zuen.
- 1967 Oum Khalthoumen kontzertuan izan zen Parisko Olympian, eta bizi osorako arrasto sakona utzi zion esperientzia hark.
- 1968 Balenciaga etxea itxi zutelarik, *couturier* handi haren soinekoak erosi zituen Alaïak, haiek salbatzearen. Modaren ondare zaurgarri hura agerkunde moduko bat izan zen beretzat. Horrela hasi zuen, izan ere, modaren maisu handiei buruzko bilduma.
- 1970 Alaïak Patrick Modiano ezagutu zuen; bizi osoko adiskidetasun harremana izan zuten harrezkero biek.
- 1971 Alaïak Greta Garbo ezagutu zuen, eta jantziak egin zizkion, Christoph erabiliz berokien sorbaldetarako modelo gisa, sorbalda zabal eta maskulinoak nahi baitzituen Garbok.
- 1979 Alaïak jantziak sortu zituen Charles Jourdanentzat, baita Thierry Mugler moda sortzailearen bildumarako ere. Alaïak egin zizkion esmokinekin oso pozik gelditu zenez, Muglerrek esker ona adierazi zion bildumari atxikitako prentsa dossierrean. Eta bere bilduma propioak sortzeko adoretu zuen.

- Muglerrek, *Elle* aldizkariko Melka Treanton eta Nicole Crassat moda kazetari handiek bezala, *Maison* Alaïa etxe propioa sortzen jarraitzeko animatu zuten. Carlyne Cerf de Dudzele, Carla Sozzani eta Anne-Marie Périer moda kazetariak ere babesa adierazi zioten, eta hurbileko adiskide izan zituen. Crazy Horse kabaretaren sortzaile Alain Bernardinik Alaïari gonbita egin zion Parisko kabaret ospetsu hartako 23 dantzarietako jantziak sor zituan.
- 1981 *Maison* Alaïa sortu zuen Christoph von Weyherekin; hark, margolari gisa lanean jarraitzeaz gainera, enpresa berri hartako gorabehera guztietan lagundu zion Alaïari. Bellechasse kaleko bere etxebizitza txikian aurkeztu zuen lehenengo *prêt-à-porter* bilduma –1981eko Udaberria-Uda–. Bilduma hartan erakutsi zituen apaingarri metalikoz hornitutako larruzko jantziak, bizkarraldean gurutzatutako xingoladun gonak, kremlera metaliko agerikoak, larruzko trajeak, baita kirol jantzietarako garatutako ehun elastiko berriak ere. Zuleika modeloarekin lanean hasi zen.
- 1982 Irailean desfile bat aurkeztu zuen New Yorken, Bergdorf Goodman dendarekin. Franca Sozzani ezagutu zuen, eta bizi osoa iraun zuen adiskidetasun harreman bat sortu zen bien artean. Jean Paul Goudek Farida Khelfa aurkeztu zion: lagun minak izan ziren.
- 1983 Alaïaren lehen desfile ofiziala 1983an izan zen, Bellechasse kalean.
- 1984 Alaïa Parc Royal kaleko 17. zenbakira aldatu zen, Andrée Putman lagun eta diseinatzaileak dekoratutako hiriko etxe batera, hain zuzen ere. Veronica Webb, Linda Spierings eta Linda Evangelista beretzat desfilatzen hasi ziren.
- 1985 Azken hiru urteetako sorkuntzak aurkeztu zituen New Yorkeko Palladiumen, Jean-Paul Goudek sortutako dekoratu batean, berrogeita hamar modelo baino gehiagorekin eta mila gonbidatu baino gehiago bilduta –horien artean Andy Warhol–, beltzez jantziak denak, Alaïaren eskariari erantzunez. Ekitaldiak berebiziko oihartzuna izan zuen. Frantziako Kultura Ministerioak bi sari eman zizkion Alaïari Oscars de la Mode sarietan: «Bilduma frantses onena» eta «Urteko diseinatzaile onena».
- Fashion 1980-1985: A day with Azzedine Alaïa* aurkeztu zen Bordeleko CAPC Musée d'Art Contemporain museoan, Jean-Louis Froment zuzendari artistikoaren gidaritzapean. Dan Flavin artistaren obrekin batera aurkeztu ziren Alaïaren lanak. Jean-Louis Froment izan zen Frantziako museo batera gonbita egin zion lehena. Elkarrekiko mirespenean oinarrituriko adiskidetasun harreman luze batek elkartu zituen bi gizonak. John Glenen *James Bond: A View to a Kill* filmean Grace Jonesek jantziko zituen jantzi gehienak sortu zituen Alaïak. 1985eko Udaberria-Uda bildumarako, Césarrekin lankidetzan aritu zen.
- 1986 Naomi Campbell pasareletan debuta egin zuen, Alaïaren eskutik. 1986ko Udaberria-Uda bildumak gorputzari egokitzen zitzaizkion jertse «lotailuz» egindako soinekoak biltzen zituen, antzinako Egiptoko momietan inspiratuak. Tina Turnerren laguna egin zen. Sophie Hicks ezagutu zuen. Paolo Roversi eta Peter Lindbergh ezagutu zituen.
- 1987 Azzedine Alaïak XIX. mendeko biltegi bat eskuratu zuen, Parisko Marais auzoan, Verrerie kaleko 16. zenbakian. Biltegia berritu, eta hantxe kokatu zituen bere etxebizitza, bere lantegia eta baita *boutique* bat ere, Julian Schnabel artista eta lagunaren altzariez dekoratua. Berritze lanak artean amaitu gabe zirela hasi zen bere desfileak eraikin hartan aurkezten.
- 1988 Alaïak lehen *boutiquea* ireki zuen New Yorken. Julian Schnabelen altzariez dekoratu zuen. 1988ko Udaberria-Uda bilduma Verrerie kalean aurkeztu zen, maiatzean, gainerako diseinatzaileek beren bildumen desfileak egin eta bi hilabetera. Harrezkero, arropa prest dagoenean egiten dira desfileak, eta ez modaren egutegi ofizialak agindutakoan. Une hartan lanean hasi zen, halaber, Joe McKennarekin. Munduko modelorik ezagunenek desfilatzen zuten Alaïaren bildumen aurkezpenetan: Stephanie Seymour, Yasmin Le Bon, Christy Turlington, Farida Khelfa, etab.
- 1989 Alaïak Frantziako banderaren hiru koloreetako soinekoa sortu zuen Jessye Normanentzat, Parisen Frantziako Iraultzaren 200. urteurrena ospatzeko ekitaldia zela-eta, baita ospakizuneko desfilerako jantzi guztiak ere.
- 1990 Azzedine Alaïa eta Christoph von Weyhe Moussy kalera aldatu ziren.
- 1991 Tatirekiko lankidetzarako, poltsa bat, T-shirt bat eta alpagata pare bat proposatu zituen Alaïak. Lehen aldia zen *couturier* batek *mass market* deritzonoko marka batekin lan egiten zuena. 1991ko Udazkena-Negua

- bilduman, leopardo-zoko estanpatuari omenaldia egin zion.
- 1992 Udaberria-Uda bildumarekin bat etorriz, argazki liburua argitaratu zuen Prosper Assoulinek. Hafida arreba maitea hil zitzaion. Alaïa modatik urrundu zen.
- 1995 Alaïak desfileak egiteari utzi zion urte batzuek, baina soinekoak lantzen jarraitu zuen bezero pribatuentzat, eta denda batzuetan salgai jarri zuen bere *prêt-à-porter* lerroa. Théâtre de la Ville de Paris antzokian aurkeztutako Carolyn Carlsonen *Vue d'ici, the View* balleterako jantziak sortu zituen. Ballet hartako jantzien parte zen «borla» soinekoa. Maryline Vigourouxekek hala proposatuta, Institut Mode Méditerranée institutuaren ohorezko lehendakari izendatu zuten Azzedine Alaïa. Olivier Saillardekin lankidetzan aritu zen Marseillako hiriko Musée de la Moderako. Lagun onak egin ziren.
- 1996 Bere lanari buruzko lehen atzera begirakoa, Florentziako Palazzo Corsinin, Carla Sozzani zela zuzendari artistikoa. Florentziako Modaren eta Artearen Biurtekoan, Azzedine Alaïaren soineko bat jarri zuten erakusgai, Julian Schnabelen koadroekin batera.
- 1997 Groninger Museum-en Mark Wilson zuzendari artistikoaren gidaritzapean egindako erakusketa batean, Basquiat, Christoph von Weyhe, César, Pablo Picasso, Julian Schnabel eta Andy Warholen obrek in elkarriketan erakusgai jarri zituzten Alaïaren modeloak.
- 1998 Jostunaren lagunak ziren argazkilari ospetsuek ateratako bere irudien liburu bat argitaratu zen; Bruce Weber, Peter Lindbergh eta Paolo Roversiren argazkiak biltzen zituen, besteak beste, Michel Tournier frantses idazlearen testu batez lagundurik.
- 1999 *Maison* Alaïaren garapenari begirako lankidetzan abiatu zuen Carla Sozzanirekin.
- 2000 Prada taldeak inbertsioa egin zuen *Maison* Alaïan, eta horrek ahalbidetu zuen haren garapena. Alaïaren soinekoak New Yorkeko Guggenheim Museoa erakusgai jarri ziren, Andy Warholen *Last Supper* koadroekin batera, Mark Wilson zuzendari artistikoaren gidaritzapean.
- 2002 Uda-Negua bilduma aurkeztu zen Moussy kaleko 7. zenbakiko *boutique*an egindako desfile batean. Urteak ziren *Maison* Alaïak ez zituela bere bildumak desfile formatuan aurkezten.
- 2003 2003ko bildumako goi mailako jostintzari eskusiboki eskainitako desfilea, zinetan nagusitu baitziren krokodilo larraz apaindutako jaka estuak; mahuka luzeko soineko estuak, soinekoan behera gorputzaren soslaiari jarraitzen dioten ageriko itxiturekin. Alaïak berreskuratu egin zituen bereizgarri zituen ezaugarri bisualetako batzuk.
- 2004 Alaïak Galerie Azzedine Alaïa aretoa sortu zuen Verrerie kaleko 18. zenbakian. Bere *Maison*eko atea ireki zuen, eta artearen, modaren, diseinuaren, argazkilaritzaren eta literaturaren esparruetako talentu handiko artistek erakusketak egin zituzten bertan.
- 2007 Prada etxeak *Maison* Alaïan zituen partek berrerosi, eta RicheMont taldearekin bat egin zuen. «Association Azzedine Alaïa» elkarte sortu zuen, Christoph von Weyhe eta Carla Sozzanirekin, moda, diseinu eta arteko artxiboak babesteko. Elkartearen helburu nagusia zen interes publiko aitortuko fundazio bihurtzea. Association Azzedine Alaïaren logoa –A letra eta bi puntuak– Julian Schnabelek marraztu zuen 1996an, Azzedine lagunaren omenez. Hurrengo urteetan, garrantzi handiko artistek egin zituzten erakusketak bertan, besteak beste, hauek: Shiro Kuramata, Pierre Paulin, Memphis Group, Andrea Branzi, Bettina, Pierre Guyotat, Kris Ruhs, Jean Nouvel eta Claude Parent, Christoph von Weyhe eta Richard Wentworth.
- 2011 *Azzedine Alaïa in the 21st century* erakusketa egin zen Groninger Museum-en, eta, ondoren, Dusseldorf-en, 2013an, Mark Wilsonen zuzendaritzapean, betiere. Uztailean, goi mailako jostintzari eskainitako bigarren desfilea aurkeztu zuen, eta izugarriko arrakasta izan zuen.
- 2013 Angelin Preljocajek Montpellierko Dantza Jaialdirako sortutako *Les Nuits* balleterako jantziak egin zituen. Dusseldorf-en, Mark Wilson zuzendari zuen Azzedine Alaïa atzera begirako erakusketarekin ireki zituen atea Kunstpalast museoak. Alaïak Mozarten *Le nozze di Figaro* operarako jantziak sortu zituen; opera hartarako eszenografia Jean Nouvelek sortu zuen, eta Christopher Aldenek zuzendu zuen Los Angeleseko Filarmonikoa. Zenbait urtez itxita egon eta berrikuntza ekinaldi baten ondoren, Palais Galliera Musée de la Mode de la Ville de Parisek Azzedine Alaïari eskainitako erakusketa batekin zabaldu zituen atea berriro; Parisen hari buruz egindako atzera begirako lehen erakusketa izan zen, eta Olivier Saillard izan zuen zuzendari

- artistikoa. Aldi berean, beste erakusketa bat inauguratu zuten Musée d'Art Moderne de la Ville de Parisen, Salle Matisse aretoan.
- 2014 Omenaldia egin zion, erakusketa baten bidez, aspaldiko bere lagun min Bettina Grazianiri.
- 2015 Alaïaren lanaren erakusketa, Galleria Borghesen: *Couture/Sculpture*. Anna Coliva izan zen zuzendaria, eta Mark Wilson zuzendari artistikoa.
- 2016 Joe McKennak film bat egin zuen Azzedine Alaïaren bizitzari buruz.
- 2017 Alaïak goi mailako jostuntzari eskusiboki eskaintako hirugarren desfilea aurkeztu zuen: 2017ko Neguko bilduma. Naomi Campbellekin hasi zen desfilea. Pieza berdingabeak sortu zituen Maria Alexandrova eta Blanca Li dantzariarentzat, zeinak jantzi baitzituzten *Goddesses and Demonesses* balletean. Jonah Bokaer koreografoarekin lan egin zuen haren *Shaharazad* balleterako. Azaroaren hasieran, 2018ko Uda bilduma aurkeztu zuen. Azaroaren 18an, hil egin zen Azzedine Alaïa, Parisen. Linda Spierings, Marpessa, Imaan Hammam, Farida Khelfa, Marie Sophie Wilson-Carr, Stephanie Seymour, Naomi Campbell, Veronica Webb, Mariacarla Boscono, Nadège eta Dilonek omenaldia egin zioten Londresen.
- 2018 Olivier Saillardek hautatutako bilduma batek osaturiko *Je suis couturier* erakusketa inauguratu zen Parisen, Verrerie kaleko 18. zenbakian; erakusketa hark markatu zuen Alaïa museoaren sorrera. *Tribute to Azzedine Alaïa* erakusketaren inaugurazioa, Seulen, Hego Korean. *Azzedine Alaïa: the Couturier* erakusketaren inaugurazioa, Londresko Design Museumen, Mark Wilsonen zuzendaritzapean.

1976. Azzedine Alaïa  
© Sipa Press / Rex / Shutterstock







# Cristóbal Balenciaga

## (1895-1972)

- 1895 Cristóbal Balenciaga Getarian jaio zen, Euskal Herrian kokatutako marinel herri txiki batean. Marinela baten eta jostun baten semea zen, eta jaioterrian bertatik bertara ezagutu zuen mendearen hasieran errege-erreginek euskal kostaldean uda igarotzeko izan zuten joera haren gorakada.
- 1906 Casa Torres markesarentzat egin zuen lehenengo soinekoa; Cristóbal Balenciagaren mentorea izan zen, hain zuzen, emakume hura, eta haren amak egiten zizkion jostun-lanak markesari, familiarekin batera Getarian igarotzen zituen udako denboraldi luze haietan.
- 1907 Donostiara joan zen Balenciaga –udal-eroldaren erregistroaren arabera, urte horretatik aurrera Gipuzkoako hiriburuan bizi izan zen–, eta pentsa daiteke orduko moda-etxe garrantzitsuren batean prestatuko zela, Casa Gómez, New England eta Almacenes Au Louvre etxeetan, ziur asko.
- 1911 Au Louvre saltoki handian hasi zen lanean, Donostian sukurtsala ireki zuenean, eta profesional bikain izateagatik nabarmendu zen. Denda horretan ezagutu zituen beste langile batzuk, Crespo ahizpak, adibidez, zeinek zeregin garrantzitsua izan zuten Balenciagaren negozioan.
- 1917 Cristóbal Balenciagak enpresaren eta sorkuntzaren munduko abenturari ekin zion. Donostiako Bergara kaleko 2. zenbakian ireki zuen bere lehenengo etxea, «C. Balenciaga» izenekoa.
- 1918 «Balenciaga y Cía» sortu zuen Lizaso ahizpekin, epe mugatua zuen sozietatea eratuz. Lanvin Etxearen modeloak eskuratu zituen; baimena zuen horiek erreproduzitzeko.
- 1924 Aurreko sozietatea deuseztatu zuen, eta hiri horretako Etorbideko 2. zenbakian, lehen solairuan, ireki zuen bere jostundegia, «Cristóbal Balenciaga» izenez. Madeleine Vionneten modeloak eskuratu zituen; baimena zuen horiek erreproduzitzeko. Vionnet itxi ondoren, diseinatzailea Balenciagaren bezero izan zen.
- 1927 Bigarren marka gisa, «Martina Robes et Manteaux» sortu zuen –amaren izena zen Martina–, eta, urte horretan bertan, urrian, Donostiako Okendo kaleko 10. zenbakian kokatuta zegoen «EISA COSTURA» jostundegira eskualdatu zuen marka; azken izen horrek ere bazuen amarekin lotura, amaren abizena Eizagirre baitzen.
- 1933 «Cristóbal Balenciaga» etxea Askatasunaren Hiribideko 2.eko bigarren solairura lekualdatu zuen, eta beste areto bat ireki zuen, lehen solairuan, «EISA B.E.» izenekoa. Cristóbal Balenciagak Madrilan ireki zuen jostundegia, Caballero de Gracia kaleko 42. zenbakiko behe solairuan, «EISA B.E.» izenarekin.
- 1935 «EISA B.E.» jostundegiaren hirugarren sukurtsala ireki zuen, Bartzelonako Santa Teresa kaleko 10. zenbakian.
- 1936 Gerra Zibila hasi zenean, Madrilgo eta Bartzelonako Etxeetako jarduerak bertan behera utzi zituen aldi baterako.
- 1937 «EISA COSTURA» jostundegia Etorbideko 2. zenbakiko bigarren solairura lekualdatu zuen, eta «EISA B.E.» izena jarri zion.
- 1937 Uztailean, Chambre Syndicale de la Haute Couture erakundearen eman zuen izena, eta, Wladzio d'Attainville eta Nicolás Bizcarrondo bazkideekin batera, «BALENCIAGA» Sozietate Mugatua ireki zuen, goi-mailako jostuntzako

- etxea, hain zuzen, modaren historian mugarri izango zena.
- 1939 Eragin historizista nabarmeneko bilduma bat aurkeztu zuen Cristóbal Balenciagak, xvii. mendeko eta Frantziako Bigarren Inperioko moda gogorarazten zuena. «Infanta» izeneko soinekoak arrakasta itzela izan zuen.
- 1938 Cristóbal Balenciaga eremu sozial, politiko edo kulturaleko nazioarteko bezero bikain batzuentzat hasi zen lanean: Barbara Hutton, Mona Bismark, Meye Ayende, Farah Diva, Rhéty printzesa, Patricia López Wilshaw eta Madame Bricard.
- 1940 Besteak beste, Horst P. Horst, Man Ray, Madame D'Ora, Inge Morath eta Cartier Bresson argazkilariek izan zuten Cristóbal Balenciagaren lana dokumentatzeko ardura, bai eta hura erretratatzeko ardura ere, ezagutzen diren beraren argazki apurretan.
- 1941 Llanzolgo markesak janzki bat eskatu zion EISA Etxeari; enkargu horren ondorioz, laguntasun-harreman hurbila izan zuen jostunarekin.
- 1945-46 Balenciagak Teathre de la Moden parte hartu zuen; gerraosteko ekimen horren asmoa Parisko goi-jantzigintzari distira itzularaztea zen. Beste diseinatzaile eta artista batzuek ere hartu zuten parte, esate baterako, Jacques Fath, Lucien Lelong, Robert Piguet eta Chambre Syndicale de la Haute Couture erakundeko kide batzuek.
- 1946 Izaeraz isila bazen ere, Cristóbal Balenciagak harreman estua eta laguntasunekoa izan zuen orduko moda-kazetarietako birekin: Carmel Snow, *Harper's Bazaar* aldizkariaren editorea, eta Bettina Balard, Vogueren Iparramerikako edizioaren editorea.
- 1947 Otsailean, «tonneau» edo «upel» izeneko linea aurkeztu zuen Balenciagak; figura zurrinak nagusi zituen estetikatik urrundu zen, eta arintasunaren aldeko apustua egin zuen bere diseinuan. Urte berean, Diorrek «Bar» trajea aurkeztu zuen.
- 1949 Kalearen mailan zegoen lehenengo *boutiquea* inauguratu zuen, Christos Bellosek diseinatutakoa. Soiltasuna nagusi zuen dekorazioa izan arren, dotoretasun eta luxu handiko denda zen, eta hango altzariak eta elementu apaingarriak argi erakusten zuten espainiar jatorria.
- 1950 André Courrèges Parisko Balenciaga Etxean hasi zen lanean; hurrengo urteetan ere, beste jostun asko prestatu ziren bertan, eta horietako batzuek ospea lortu zuten nazioartean, adibidez, Emanuel Ungaro, Elias Zabaleta eta Federico Forquetek.
- 1950 Balenciaga lankidetzan aritu zen Jean Cocteaurekin *Le testament d'Orphée* (Orfeoren testamentua) filmean. Halaber, jostunak egin zituen Grace Kelly, Marlene Dietrich, Ava Gardner, Brigitte Bardot eta Ingrid Bergmanen jantziak hainbat proiektu zinematografikotan.
- 1951 Cristóbal Balenciagak honako hauek sortu zituen: «erdi doitutako» trajea (otsaila), «itsas blusa» (otsaila) eta «midi» (abuztua). Hogeiko urteetako siluetak zekartzaten gogora gerria lausotzen zuten modelo horiek, eta sorbaldetako linea eta soinekoen barrena ezarri zituen erreferentziatzat Balenciagak.
- 1952 Urte honetatik aurrera, Janine Janetek diseinatu zituen erakuslehoak. Eskulturak egiten zituen, eta produktuak txertatzen zituen horietan, edota oinezkoentzat zuzen-zuzenean ikusezin bilakatzen zituen, eskulturak egiteko erabiltzen zituen materialei eta eskulturek zuten izaera artistiko nabarmenari esker.
- 1952 Tom Kublin argazkilaria Cristóbal Balenciagarentzat lanean hasi zen, haren bildumak dokumentatzeko.
- 1953 Cristóbal Balenciagak Hubert de Givenchy ezagutu zuen, New Yorken, «April in Paris» festaren ondoren.
- 1955 «Tunika» aurkeztu zuen, linea zuzen eta garbiak zituen bi piezako soinekoa, hain zuzen. Gorputza estutu gabe estaltzen zuen, eta «midi» izeneko linearen bilakaera izan zen.
- 1956 Goi-mailako jostuntzako desfileak ofizialki hasi eta handik hilabetera, Balenciagak bere bildumak Hubert de Givenchyrekin batera erakustea erabaki zuen. Elkarrekin, desafio egin zioten statu quoari eta prentsa-aurkezpenak hilabete atzeratu zituzten; hala, bezeroei primizian eta eskusiban erakutsi zizkieten bezeroei beren bildumak, baina ez zuten galdu argitalpenik garrantzitsuenetako lehen orrietako nagusitasuna.
- 1957 (abuztua) Esperimentazio formalean beste urrats bat eginez, «zaku» itxurako soinekoa txertatu zuen jostunak bere bildumetan, «itsas blusa» izeneko linearen bilakaera gisa. Ehunen sortzaile zen Gustav Zumstetekin batera (Abraham), gazar izeneko ehuna sortu zuen; ezaugarri eskultorikoak zituen ehuna,



- hain zuzen, gero eta kontzeptualagoak ziren haren sormen-lanetarako proposa.
- 1956 Rachel Lambert Mellon iparramerikar filantropoa Etxearen modeloak eskuratzen hasi zen, Jean Jean Schlumbergerren bitartekaritzari esker, eta, laster, Balenciagaren bezerorik fidelenetako bat bihurtu zen, baita, denboraren poderioz, lagun min ere.
- 1958 «Baby-doll» izeneko soinekoa aurkeztu zuen Cristóbal Balenciagak, gerririk gabeko silueta trapezoidal sotila ezaugarri zuen soinekoa; horrez gain, paumaren isats itxurako soinekoak erakutsi zituen, atzetik aurretik baino luzeagoak zirenak. Frantziako Gobernuak Chevalier de la Légion d'honneur titulua eman zion, modaren industriari egindako ekarpenagatik. Nazioarteko prentsak «Goi-mailako jantzigintzaren maisu» aitortpena eman zion.
- 1958 Balenciagak Bernard Buffet margolariaren koadro bat eskuratu zuen. Bertan, margolariaren emazte Isabelle Buffet agertzen da, couturierraren sorkuntza-lanetako bat jantzita. Cristóbal Balenciaga arte klasikoaren eta modernoaren bildumagile handia izan zen, eta Aimé eta Marguerite Maeght mezenasez eta haren artista lagunez inguratu zen. Horien artean zeuden Matisse, Miró, Bonnard, Kandinsky, Braque, Giacometti, Leger, Calder eta Chagall.
- 1960 Cristóbal Balenciagak Fabiola de Mora y Aragónen andregai-soinekoa diseinatu zuen. Torres Etxeko markesaren biloba zen ezkongai, eta, etorkizunean, Belgikako erregina izango zen.
- 1962 Gero eta forma garbiagoak eta abstraktuagoak txertatu zituen Balenciagak. Argi eta garbi ikusten ziren haren ibilbidean berezkoak izan ziren minimalismo kontzeptuala eta teknikoa, halako zurruntasun bat zuten ehunekin egindako bolumen handiko jantzietan, hala nola gazar, zagar eta ziberlina ehunekin egindakoetan.
- 1968 Cristóbal Balenciagak Air Francerentzat uniformeak diseinatzeko eta egiteko enkargua onartu zuen; prêt-à-porter modarako egin zuen lan bakarra. Esperientzia horren ondoren, otsaileko azken bilduma aurkeztu zuen, eta, bi hilabete geroago, erretiroa hartzera zihoala iragarri zuen, bai eta Paris, Madril, Bartzelona eta Donostiako Etxeak itxiko zituela-ere. Bizitza osoan eman zuen bigarren elkarrizketa eskaini zion *Paris Match* aldizkariari.
- 1969 Azken Etxea itxi zuen behin betiko Donostian.
- 1971 Züricheko Bellerive Museoa (Suitza) atzera begirako lehen erakusketa eskaini zion Balenciagari, eta, haren ondotik, beste asko etorri ziren.
- 1972 Valentziako ospitalean hil zen Balenciaga, martxoaren 24an, 77 urte zituela, eta jaioterri zuen Getariako hilerri txikian lurperatu zuten.
- 1973 Diana Vreelandek komisariatutako «The World of Balenciaga» erakusketa egin zen New Yorkeko METen. Urtebete geroago, erakusketa hori Madrilen ireki zen, Biblioteka eta Museo Nazionalen Jauregiko aretoetan. Joan Mirók egin zuen erakusketaren katalogoaren azala, eta bien arteko adiskidetasunaren lekukotza utzi zuen.



1968. Cristóbal Balenciaga  
© Henri Cartier-Bresson/Contacto

# Cristóbal Balenciaga Museoa



Cristóbal Balenciaga Museoa, Getarian  
© Cristóbal Balenciaga Fundazioa/  
Idoia Unzurrunzaga

**Cristóbal Balenciaga museoak 2011. urteko ekainaren 7an zabaldu zituen ateak. Jostunaren jaioterrian dago kokatua, Cristóbal Balenciagaren lehenengo prestakuntza-urteen eta heldutasun profesionalaren oroimenez eta modaren munduari egindako ekarpenak ulertzeko helburuarekin.**

Balenciagaren bizitza eta lana, modaren eta diseinuaren historian izan zuen garrantzia eta bere ondarearen garaikidetasuna ezagutzera emateko helburuarekin, bilduma aparta du museoak. Oso bilduma zabala da –3.500 pieza baino gehiago inguru ditu, baina etengabe ari da handitzen, gordailuei eta dohaintzei esker–, eta hedadura formal eta kronologiko handia du –jostunaren modelo zaharrenak daude, esaterako–; bi ezaugarri horiei esker, gaur egun dagoen bildumarik osatu, koherente eta interesgarriena da.

Bildumaren beste balio ezohiko bat piezen jatorria da; izan ere, Balenciagaren nazioarteko bezero handiak xx. mendeko gizarteko pertsonaia aipagarriak izan ziren: Mona Von Bismarck, Rachel L. Mellon, Patricia López Wilshaw, Barbara Hutton, Lilian Baels, Grace Kelly edota Madame Bricard, besteak beste, Artxiboetan dauden modeloak jantzi zituzten.

# Informazioa

ZURIÑE ABASOLO IZARRA  
Komunikazio arduraduna

[zurine.abasolo@fbalenciaga.com](mailto:zurine.abasolo@fbalenciaga.com)

T +34 943 004 777

M +34 647 410 775

# IO|B

Aldamar Parkea 6  
20808 Getaria - Gipuzkoa - España  
T 943 008 840  
info@crislobalbalenciagamuseoa.com  
www.crislobalbalenciagamuseoa.com



Biarritz — 71km  
Bilbao — 81km  
Donostia/San Sebastián — 25km  
Iruña-Pamplona — 97km  
Vitoria-Gasteiz — 83km

GPS  
43° 18' 6.92" N  
2° 12' 18.77" W

